

bidegileak



Crispín Guasch (1888-1974)

Egileak:


LONTXO OHIARTZABAL REZOLA
IKER LASKIBAR GARCÍA
EIDER GANBOA RUIZ DE EGUILAZ

Irurako maisu zaharra eta peda- gogo euskalduna

Bere bizitzaz hainbat zertzelada



uskaltzaindiaren Laguntzailleak izeneko elkarteak argitaratzen zuen *Deia* aldizkarian eta Gipuzkoako *La Instrucción Primaria* izenekoan aurkitzen ditugu Crispín Guasch jaunari buruzko ia aipamen bakarrak. *Deia* aldizkari horren lehen zenbakiko (1933ko Lotazillekoan) zazpigarren orrialdean zera dio hitzez hitz: «I l'tan.- Guasch'tar Crispín, Irura'ko irakasle argiak iragarritako itzaldia egin zuan: Marrazkia, oro-izkera.- Euskera irakasteko nola erabili?» Eta jarraitzen du: «Guasch Jauna Katalunyarra da. Irura'ko errian bere ikastolako aurrak



Crispín Guasch (1888-1974)

Euskera besterik ez dakite. Nola adierazi aiei Irakasleak nai duana? Guasch Jaunak, guziak ulertzen duten izkera erabiltzen du: marrazkia. Arrigarriak dira bide onekin iritsi dituan ondorenak. Eta zergatik ez erabili bide ori bera aur erdaldunei Euskera irakasteko? Guasch Jaunak, olean irudiak marraztuaz, argi erakusten digu nola irakatsi leizken marrazki bidez euskal esakunaren zati guztiak: izena, mugaitza, zendina, izenordea, adi-

tza etab. Txalo sutsuak irabazi zituan bere itzaldi bikañaren sariz. Eta guk galdera bat dagiogu: noiz argitaratuko digu Guasch Jaunak amaituxea daukan euskal ikaspidea. Zai gagozkio». Honaino aipatu aldizkarian aurkitzen ditugun aipamenak.

Orain urte gutxi, Juan Mari Lekuonak argitu dizkigu gertakari –hitzaldi– horren inguruko gorabehera batzuk Euskaltzaindiaren *Euskara* (1991,2) aldizkarian, bere osaba Martinek Guasch jaunari orduan bidalitako bi eskutitza argitaratuz. Crispín Guaschen alabak eskuratu zizkion eskutitza horien kopiak. Alaba berari esker, lrurako maisuak eskainitako hitzaldia- ren testua izan daitekeena ere eskuratu dugu. Ezaguna zaigu, beraz, Guasch jaunak *Euskaltzaindiaren Laguntzailei* 1933ko iraila- ren 13ko bileran esan ziena eta, agian, baita ere *La Instrucción Primaria* aldizkariaren 1933ko urriko alean aitatzten diren Gipuz- koako Jardunaldi Pedagogikoetan parte hatu zuten maisu-maistrei urte horretako apirila- ren 5ean adierazi ziena, bietako aztergaia ber- bera baita. Jardunaldi Pedagogikoetan, gainera, bere ikasle-talde batekin arrakasta handiz –hala dio berriemaileak– burutu zuen saio praktiko batez amaitu zuen bere jarduna. Geroago jardungo dugu hitzaldi horietan landu zuen gaiaz. Juan Mari Lekuonak aitaturi- ko bere idazkian dioenez, «lrurara etorri zenak –Guasch maisuak, alegia– metodo berezia zuen hizkuntzak erakusteko. Eta metodo honi esker euskaraz ikasi zuen berak,

eta euskaldun hutsak ziren umeei gaztelera erakutsi zien, emaitza bikainekin erakutsi ere. Pedagogian aditua eta ikasia zen aldetik egin zioten Laguntzaileek dei ikas aldira».

Adierazi bezala, Kataluniakoa zen Crispín Guasch Espina jauna. Tarragonako Vilanova de Escornalbou hirian jaio zen, 1888ko urria- ren 8an, etxeko lantegi txikian oliogintzara emana zegoen familia batean. Hiru anaia ziren eta hirurek Tarragonako ikastetxe batean burutu zituzten lehen-ikasketak. Hiri bereko Irakasle Eskolan –gizonezkoak soilik onartzen zituena– maisutzako ikasketak burutzera matrikulatu ziren hirurak amona- ren eraginez. Ikasketak amaitu eta zegokien agiria eskuratu zuen Crispin gazteak: «posee título de maestro elemental, expedido con nota de sobresaliente en 2 de Enero de 1906», dio Hezkuntza Ministerioko Gipuz- koako Lurralde Ordezkaritzak 1958ko urria- ren 8an luzatutako «zerbitzu-orrian». Morera hiriko eskolan ekin zion lehen maisu-lanari ikasketak amaitu orduko; gerora Villaplana, Gondesa eta Vinebre-ko eskoletan ere jardun zuen eginkizun horretan.

1917an, irakasleen leku-aldaketak zirela medio, Oviedo probintzian kokaturik dago- en Aces-Candamo-ko eskolara bidali zuten, eta hor eman zituen ondorengo sei urteak. Oposizio-lehiaketetan parte hartu eta zerrendako 19garren lekua lortu zuen prob- intzia berean, 1920ko abuztuaren 23an; eskubidea zuenez, eskola berean jarraitzea



Guasch senar-emazteak


erabaki zuen orduan. 1921eko abuztuaren 6an bere hirikide zuen Pilar Vernet Sedo andereñoa hartu zuen emaztetzat. Bost alaba izan zituzten; horietako bat oso gazterik galdu zuten hamasei urterekin.

Garai haietan Iruran zegoen maisua Oviadoko Aces herrikoa zen eta, antza denez, ez zen Euskal Herrira egiten. Honek eskolaz trukatzeko eskabidea egin bide zion Guasch jaunari, eta baita onartu ere irakasle kataluniarrak berehalakoan. 1923z geroztik, eta 35 urtez, Irurako eskolan jardun zuen lanean, 1958ko urtean jubilatzen arte.

Donostiako Elizbarrutiko Bikario Orokorrak urte horretako urriaren 6an bidali zion

gutun batean azaltzen denez, omenaldi bat eskaini zion «mais zaharrari» Irurako herriak, bertan burutu zuen lan ona eskertzeko xedez. Aipa dezagun, bide batez, oso elizkoia zela gizon hau, eta Kontzilio ondorengo elizkizunetan kantatu ohi ziren abesti berrien testuak ere euskara aztertzeke bere lanetan erabili ohi zituela, utzi dituen esku-izkribuetan ikus daitekeenez. Era berean, hirurogeigarren hamarkadan hain ezagunak egin ziren euskal kanta berrietakoak ere (Julen Lekuonarenak eta) aurki daitezke jubilatzen ondorengo bere oharretan.

1974ko otsailaren 26an zendu zen Donostian, 85 urte zituelarik. Gertakari hau zela



Oviedoko Aces herriko bere ikasle ohiek, tarjeta moduan, bidali zioten argazkia eta jarri zizkioten hitzak

eta, hona YODABE izen pean, Irurako orduko bikarioak, (Ignazio Otaegi apaiz jaunak), egunkari batetan idatziriko oharretik jasozten ditugun hitz batzuk:

70 urte zitularik erretiratu zen; eta, naiz Donostin bizi izateko era ederra euki, Iruran gelditu zen. Oraiñ 3 urte Donostira eraman zuten bere alabek; eta bere pozik aundiena Irurara etortzea izan oi zen. Donostin il da, baña bere gorputza Iruran lurperatzea nai izan du eta gure artean **Egun Aundi** arte gelditu da.

D. Crispin, 34 urtekin Euskalerriratu zan. Eta naiko berandu izan da ere, euskera ikas-teari gogor ekin zion. Anai arteko guda aurretik «Elebitza»ren alde jokatu zuen, itzaldi eta erakuskizun asko an eta emen egin eta emanaz; bere alabek ondo baño obeto ikasi zuten eta itz egiten dute euskeraz, naiz batzuek erbestean urte asko eraman; eta erretiratuta gero bere «hoby» bakarra euskera zan eta ordu geientxuenak euskerazko lantxotan ematen zituan. Gaxotu zanean, bere lan-maian irikita Mugika'ren iztegia gelditu zan.

Azkeneko urteetan euskerazko gramatika bat eskoletarako antolatzen bero bero ari zan. Jainkoak eman dezaiola betiko pakea!

Garai haietako Irurako bikario jaunak aipatzen zuenez, hitzaldi ugari emandako maisua zen Guasch jauna. Martin Lekuonak bidali zizkion bi gutunetatik batean esaten dionez

ere, hizkuntzen irakaskuntzan maisu arrakastatsu bezala ezaguna zen:

Zeuren izan zara aholkua eskatu diogunetako bat, prentsaren bidez eta zenbait erreferentzi partikular bitarteko jakin dugunez, metodo berezi bat baituzu, zeinen bidez eta Irurako eskola-haurrekin euskara ikasi duzula eta, aldi berean, metodo berdinaz baliaturik haurrei gaztelera aurreikusi ezinako arrakastaz erakusten diezula ziurtatzen diguten.

Argitaratu, ordea, ez zuen ezertxo ere argitaratu, nahiz eta aurrez aitaturako *Deia* aldizkarian –*Euskaltzaindiaren Laguntzailleek* argitaratzen zuten hartan– kronikagileak aditzera ematen zuenez, «amaituxea zeukan euskal ikasbidea» argitaratzeko asmoa edo izan behar zuen, «zai gagozkio» esanez amaitzen baitu bere lana; eta hitzaldia eman ondoren, Martin Lekuonak egin zion eskutitzean erregutzen dionez ere, esku artean zerabilkien lana argitaratuko zuelakoan zegoen jendea:

Noiz izango dugu argitaraturik ikusteko zoria, gure haur erdaldunei euskara erakusteko testu-liburu modura erabil dezagun? Izan bihotz zure lana amaitzeko, [...].

Donostian bizi den bere alaba Pepitari «zergatik ez ote zituen argitaratu» galdetu diogunean, berak ez dakiela arrazoi berri, erantzun digu; baina bere aita minduta zego-

ela argitaratu ezin zituelako ere, esan digu bide batez.

Beldurtu edo egin zen maisua, anaiarteko gudatearen ondoren euskara eta euskal kulturaren inguruan frankistek ezarri zuten giroaren eraginez. Irurako herrian, gerra ondorenean, bere ikasle izandako batzuk harritu ere egin dira irakasle zaharraren argitaratu gabeko bere lanetan euskara eta euskararekiko agertzen duen jarrera eta zaletasunaren berri eman diegunean: eskolako harremanetan bederen ez omen zioten ez aurkako ezta aldeko hitzik ere sumatu, eta gaztelaniaz baino ez omen zien egiten. Askori gertatua gertatu zitzaion, inondik ere, Guasch jaunari: bere familia aurrera atera behar eta garai haietako maisu-maistra eus-

kaltzale askori ezarri zioten zigorra saihestu nahi izango zuen, noski: lanbiderik gabe geratzea edo Euskal Herritik kanpora joan beharra, alegia. Lanak zituen, inondik ere, maisu-soldata hutsez bere familia duintasunez aurrera eramaten. Eskola-lanaz aparte, olio, ardo eta antzekoak saltzeko denda moldatu zuen bere etxean eta horretatik bildutakoarekin modu erosoan bizi ahal izan ziren. Dena dela, irabazi-bide osagarri honek arriskurik ere ekarri zion: Errioxa eta Nafarroan erositako ardoak garraiatzen zituzkion kamioia, bera bertan zela, irauli zitzaizkion pasatzen zituen larriak askotan aipatzen omen zituen.

Adierazi bezala, oso euskaltzale agertzen da aipaturiko bere alabak eskuratu dizkigun




Irurako eskolak Guasch maisuaren garaietan

esku-izkribuetan: hil aurreko bere urteetan zehar euskararen gramatika bat osatu nahian zebilela ikusten baita argi eta garbi; ikusi egin behar, zentzu honetan, nolako saioak eta nolako ikasbideak moldatzen zituen euskara ikasteko ahaleginetan jar zedinarentzat! Ikuspegi didaktiko batetik landuak eta irudimen handi eta praktikoaz adieraziak daude bere irakasbideak. Eredugarria benetan bere azken lana izan zitekeenean agertzen duen argitasuna, txukuntasuna eta jartzen dituen adibideetako aberastasuna. Era berean, behin eta birritan burututako birmoldaketak antzematen dira eskolako ikasleentzat prestatu nahian zebilen «Libro del Lenguaje» delakotan, Irurako neska-mutikoetatik jasotzen zituen adibide berriak txertatuz han eta hemen, euskara eta gaztelania aldi berean jorratuz.

Idazki horien artean, *Deia* eta *La Instrucción Primaria* aldizkarietan aipatzen den hitzaldiaren testua izan daitekeena ere aurkitzen da, marrazkiak hizkuntzen irakaskuntzan izan dezakeen erabilgarritasun didaktikoaz ari baita bertan. Aipaturiko «Hizkuntzaren liburua» hainbat liburukitan banatua dagoela dirudi: euskararik ezagutzen ez duen maisu atzerritarrari hemengo hizkuntza era errez eta oso praktikoan ikasteko moduan idatzirik dago; baina baita, aldi berean, ikasleen euskara-ezagutzetatik abiatuz gaztelera nola

irakats daitekeen adierazteko xedez moldatua ere.

Esku-izkribu horietan euskararekiko zuen jarrera eta gure hizkuntzaz egiten zuen balorapena aztertzen saiatuko gara lehenik, eta bere ikuspegi pedagogikoa arakatzeko jardungo dugu ondoren.



Euskaltzaindiaren Laguntzaileak elkartearen *Deia* aldizkariako orrialde bat, non Guasch jaunak eskaintako hitzaldiaren berri ematen den

Euskal Herria eta euskararekiko bere jarrera

Gaurko euskaldunok gure aurrekoengandik ahoz eta idatziz jaso izan dugunez, kanpoko maisu-maistren ardurapean eta gaztelera hutsez ikasi behar izan zuten ia euskaraz bakarrik zekiten neska-mutil euskaldunek. Irakasle horien hizkuntza ez ezagutzeagatik makina bat nozitutako pertsona ezagutu dugu geuk ere. Egoera horren berri bazuen Crispin Guaschek Iruraratu zenean. Argi eta garbi adierazten du egoera horren zakartasuna berak eskuz idatzirik utzi zuen «Hizkuntzaren Liburua» edo berak «Libro del Lenguaje» izendatutakoaren hitzaurrean:



Euskal Herriaren mapa Guasch maisuaren garaiko eskola-haur batean

Inork engainurik izan ez dezan, eta mesfidantza eta errezelo oro deuseztatzeko asmoz, zera diot, lan honen helburu bakarra pedagogikoa eta gizakioia dela: pedagogikoa, haur euskaldunek hizkuntza ofiziala, hau da, beren jatorrizkotik hain ezberdina eta, aldi berean, hain aberatsa eta ederra den gaztelera ezagutzera iritsi daitezela lortu nahi baita; gizakioia, eskolara hasi orduko, asko eta askori erabat ezezaguna egiten zaion hizkuntza batean lan egin beharrak sortzen dion tortura ezabatzeko asmoz idatzia delako.

Tortura hori, dio, gainera, gogo oneko maisu-maistrena ere bazen, ahalegin eta neke handia inolako etekinik gabe geratzen zitzaiera konturatzen baitziren. Hitzaurre berean harira datorren honako adibidea aipatzen du, berak etorri berritan bizi izanikoa:

Gogoratzen dudanez, ni Euskal Herriratu eta berehala zera esan zidan gau-eskolara etorri nahi zuen gaztetxo baten amak, ikasteko gogo handia zuen bere semeari sekulako beldurra eragiten ziola eskolak, bertan karabineroen hizkuntza bakarrik erabiltzen zelako.

Behin eta birritan errepikatzen du pedagogo irurarrak bere kezka eta bizipen hau esku-izkribuetan zehar. Aipaturiko bere Hizkuntzaren Liburuko «Eskolan» izeneko atalean, adibidez, honela deskribatzen du garai haietako ikasleen jarrera eta egoera:



Irurako bere eskolako ikasleekin, neska-mutilak batera

Haurrak jakin-minez sartzten dira: interesgarria egiten zaie *mais berria*. Asko astinduko ote gaitu?, esanen dute berekiko. Bakoitzak bere tokia hartzen du berehalakoan. Txikitxo bat zutik geratzen da, eta bere keinuen eta begiradaren bitartez aditzera ematen digunez, bera ere arrotza da hemen. Beldurturik dagoela dirudi inguratzen gatzaizkionean. Errezeloz begiratzen gaitu. Harritzekoa ere ez da: gauza larriak entzun ditu eskolari buruz. Karabineroen hizkuntza bakarrik erabiltzen dute bertan, esan diote, eta euskaraz hitz egiten baduzu, ordu beteko itxialdia suposatuko dizun eraztun bat emanen dizute!

Hitz adierazgarriak, kanpotik Euskal Herrira etorritako maisu nazional batek idatziak direnez.

Bere testu horietatik suma daitekeenez, oso bestelakoa zen berak euskararekiko hartu zuen jarrera.

«Euskara ikastezina den hizkuntza dela dioen iritzi hain orokortua ez da zuzena», esaten die euskararik ez dakiten maisu-maistrei aipatu liburuko hitzaurrean.

Nola izango da, bada, ikastezina! Begirada hutserako bereziak diren hurrek ere arazorik gabe menperatzen dutela ikusten ez dugu, bada, egunero? Gutxiago izanen ote




Irurako eskolako bere ikasle-taldearekin, adin ezberdineko mutilak guztiak

gara gu maisuok, gizonetzko zuzen eta eginok?

Egunero hitz bakar bat ikasiz ere, urtean 365 izanen liratekeela ikasitakoak eta epe nahiko motzera ikasleekin euskaraz jarduteko gauza izanen direla gogorarazten die irakurle nahi dituen maisu-maistrei. Arrazoiketa berdina darabil, era berean, arestian aipatu dugun hitzaldian ere: egunero hamar hitz berri ikasiz gero, 3.650 liratekeela urtearen amaierarako, *kopuru ikaragarria haur baten lexikoa kontuan izanez gero*, bere hitzetan. Hori bai, ahalegina eta kemena eskatzen die hasiera beretik.

Liburuko lehen atalari ere izenburu azpimarragarria jarri zion, bere jarreraren berri argia adierazteko eran: «Euskal Herrira bidean / euskara ikasi nahi dut». Eta era honetan amaitzen du ataltxo motza:

Hiri gipuzkoar garrantzitsu batean uzten gaitu trenak eta ordu gutxi batzuk geroago, gertu dagoen herri bateko agintarien aurrean gaude, bertako Eskola Nazionaleko ardura hartzeko. Legezko betebeharrak buruturik, jarduera anitzeko etxe batetan hartzen dugu ostatu: ostatu, kafetegi, sagardotegi, janari-denda da, [...] eta sartu-irten



Guasch maisuaren marrazkietako bat

azkarrean dabil bertan jendea eta erosketak egiterakoan elkar agurtzen dute, solasean egon ohi dira eta eztabaidan [...] beti euskaraz! Gogora dezagun gure erabakia: arretaz beraien zerbitzura jar gaitezen eta presta gaitezen oharrak hartzera, horretarako aukera izan bezain pronto.

Jardunez eta ekintzaz erakutsi zuen bere esana egiazkoa zela: euskara ikastera jarri eta ikasi egin zuen. Esperientziatik hitz egiten die atzerritik bertaratutako maisu-maistrei!

Antza guztien arabera, berak euskara ikasterakoan egin zuen bide bera proposatzen die, eginkizun bererako, bere irakurle erdaldunei: ingurune euskaldunean murgildurik daudenean euskaraz ari direnei arreta jarri eta entzundakoaz oharrak idatziz hartu. Hizkuntzaren Liburuko lehen ikasgaia hartuko dugu horren adibidetzat eta hona aldatuko hitzez hitz, euskaratuz, jakina:

GURE LEHEN IKASGAIA

Apaldu berri dugu. Gure ondoan, alboko mahaian, lau gazte ari dira berriketan. Txorrotxioa dirudi beren berbaldiak: ederra, bai, baina ulergaitza.



Guasch maisuaren garaiko eskola-liburuetako bat

Hartu dute kafea, kopatxo bat zerbitzatu diete eta azkenik, kartak ekartzen dizkiete.

Kartetan biltzen dute, berehalakoan, beren arreta guztia. Elkar aztertzen dute, aldika-aldika, halako begirada gorde batzuk bata besteari boteaz eta «mus» hitza entzun daiteke maiz, handikiro eta erritualki esana.

Partidaren amaieran, eta antza guztien araber, eztabaida bero bat sortzen da bat-batean, nondik hitz bakar bat ere ez dugun ulertzen, elkarrizketa hau izan ezik:

Bai!

Ez!

Baietz!

Ezetz!

Egia da, bai!

Egia?

Baietz!

Ezetz!

Ezetz, gezurra da!

Ez da egia!

Eta mehatxu moduan edo, besoa jasotzen du batek; ez dezazula, ordea, beldurrik izan,



Irurako bere etxe aurrean, emaztea, alabetako bi eta lagun batekin

ez da ezer gertatuko: lagunaren sorbaldara jaisten da, poliki-poliki, esku mehatxatzailera, halako fereka bat itxuratuz, etxeokandreak, ahots zoliz zera dioen bitartean:

Neska, ekarri beste kopa bana.

Neska agertzen da eskuan pattar-boteila bat daramala; gazteen kopak betetzen ditu eta kartetan hasten dira berriro.

Erretira gaitzen eta, oheratu aurretik, errepasa dezagun gure lehen ikasgaia, aurreko elkarrizketa eta jaso ahal izan dugun azken esaldia zatika aztertuz.

Hiztegia lagun hartu eta honako lexikoa moldatuko dugu minutu gutxitan:

HIZTEGIA

Bai	<i>Sí</i>
Ez	<i>No</i>
Bayetz	<i>Que sí</i>
Ezetz	<i>Que no</i>
Egia	<i>Verdad</i>
Ze ba	<i>Que va</i>
Gezurra	<i>Mentira</i>
Da	<i>Es</i>

Itzulirik ditugu elkarrizketa osatzen duten osagai guztiak; errepika dezagun orain bi hizkuntzetan, esanahiaz hobeto jabetu eta osagai bakoitzera egin gaitzen:

Bai!	<i>¡Sí!</i>
Ez!	<i>¡No!</i>



Guascharren bost alabak

Bayetz!	<i>Que sí!</i>
Ezetz!	<i>Que no!</i>
Egia da, bai!	<i>Verdad es, sí!</i>
Egia?	<i>Verdad?</i>
Baietz!	<i>Que sí!</i>
Ezetz! Gezurra da.	<i>Que no! Mentira es.</i>

Jaso ahal izan dugun esaldiaren esanahia aurkitzen saia gaitezen orain. Hona hemen:

Neska = <i>Muchacha</i>
Ekarri = <i>Trae</i>
Beste = <i>Otra</i>
Kopa = <i>Copa (txol)</i>
Bana = <i>Una a cada</i>

Oharra: Kopa hitz modu berean erabiltzen da bi hizkuntzetan; hala eta guztiz ere, euskaraz legokiokeen ordaina «txol» dela agertzen zaigu hiztegian.

Aurreko testuan agertzen zaigunez, hizkuntza berri bat ikasteko proposatzen duen bidea, hizkuntza hori erabiltzen duten giza taldetan murgiltzea da: gaur egun *murgiltze-ereduaz* hitz egiten da, hizkuntza berri bat ikasteko eredurik aurrerakoienetakoa balitz moduan. Hona hemen beste pasarte bat, askoren artetik hautatua, aitaturiko bere irizpide horren frogagarri:

AGURRA

Ikas dezagun euskaraz agurtzen. Ez dugu, horretarako, aukera faltarik izanen.

Ohetik jaiki berriak gara eta eskolara bidean dendaren ondoko jan-gelara sartzen gara gosaria hartzeko.

Beren erosketak egiteko asmoz, dendara sartu-irtenean dabil jendea.

Entzun dezagun arretaz dendariarekin duten elkarrizketa. Berdin hasten dira guztiak. Jaso ditzagun paperean hitz batzuk eta gero horien ordainak galdetuko ditugu.

Arreta pitin batez, lortu dugu gure helburua. Hona emaitza:

- Egunon Jangoikoak (sic) dizula!
 - Baita zuri ere!
 - Zer moduz?
 - Ondo eta zu?
 - Oso ederki Jangoikoari eskerrak!
 - Asko poztutzen naiz!
 - Ni ere bai!
 - Ya, [...] zer nai dezu?
- Baina orain nork egingo digu itzulpena? Ah...bai! Joxe nagusiak.
- Joxe! Joxe! Ea, mesedez, esanen al diguzu hauek zer esan nahi duten? [...] e. a.

Toki bateko hizkuntza ikasi nahi bada bertan txertatu eta, lotsak gaindituz, bertako giroan murgildu beharra dagoela adierazi baino ez du egiten Irurako maisuak honelatsuko adibideak eskaintzen dituenean. Eskolako giroan ere jokamolde berdina eskatuko dio ikasleen hizkuntzaz jabetu nahian dabilen maisu arrotzari, geroago ikusiko dugunez.

Baina badu beste eskakizun bat ere bere proposamenean: moldatzen ari den hizkuntza-liburua maisu-maistrentzat denez, badaki

horiek hizkuntzei buruzko gramatika-ezagutzetan iaioak direla, eta aurrezagutza horiez balia daitezela eskatzen die bere kideei, bere irakurleei: ingurunean entzuten dutenaz jabetzeko beren aurrezagutza gramatikalez balia daitezela, alegia. Gerora, oso gerora, *ikaste esanguratsua*ren *ikuspegitik* oinarritzko baldintza moduan hartuko den irizpide nagusienetakoa: ikasi nahi –behar– dena ulertuz ikasi behar dela dioen ikuspegia. Pedagogia-sena suma daiteke Guasch jaunaren idazlan guztietan zehar.



Senar-emazteak alaba Pepitarekin honen ezkontza egunean

Hezkuntza-arazoekiko bere jarrera pedagogikoa

a) Irakasle-ikaslearen arteko harremanen giroa

Crispín Guasch maisuak badaki, bere senak hala diolako edo unibertsitatean horrela ikasi duelako, eskolan ikasleekin emaitza onak lortuko baditu, bere ikasleekiko harremanak zaindu beharko dituela lehenik. Harreman horietan elkarrekiko konfiantzak oinarritzko betekizuna duela ere badaki. Badaki, era berean, ikasle euskaldunek mesfidantzazko jarrera hartu ohi dutela maisu erdaldunaren aurrean; hori adierazten digute, behintzat, bere izkribuetan aurkitu ditugun aipu ugariak; lehenago aipatu ditugu horietako batzuk aurreko atalean. Euskal Herriko eskoletan lankide dituen maisu-maistra erdaldunei egiten dien lehenengoe-tako oharra, hain zuzen ere, gaztelaniarik ezagutzen ez duten ikasleengana gerturatze-ko estrategia bat da: gaztelania ezagutzen duen ikasle baten laguntzaz bilatzeko aholkua. Hona adibidea, beldurrez mututurik dagoen ikaslearengana nola hurbildu adierazten duena, hitzez hitz euskaraturik:

Bere ondoan gaude eta gure gogoia euskaraz galdetzea bada ere, gaztelaniaz egitera beharturik gaude:

–*Hola hermano! Cómo te llamas?*, esaten diogu.

Ekaitza gainean duela uste du txikiak, soin guztia dardaratzen zaio, burua makurtu eta zeharka begiratzuz bere ikaskideen babesa bilatzen duela dirudi. Ez du ahorik irekitzen.

Galdera bera errepikatzen dugu, baina alferrik!

Alferrikakoa litzateke bide horretatik jarraitzea; ez genuke erantzunik jasoko. Badator, ordea, norbait gure larrialditik ateratzen laguntzera.

– *No sabe castellano*, -diosku ahots mehez aurpegi alai eta begirada sarkorreko mutiko batek.

– *Ah no! A ver, y tu ya sabes?*

– *Un poco sí, Señor!*

– *Pues ven un momento.*

Eta inguratzen zaigularik, honelatsu diogu:

– *Mira, quiero hacerle esta pregunta*, eta aurrez prestatu genekarren txarteltxoak erakusten diogu eta aldi berean irakurri egiten diogu:

– *Cómo te llamas?*

– *Cuántos años tienes?*

– *De dónde eres?*

– *Qué nombre tiene tu padre?*

– *Y tu madre?*

– *Sabrías tú escribirmelas en vascuence?*

Gure asmoa beterik, berehala egin diezazkiokegu berriro galderak ikasle txikiari, baina bere hizkuntzan oraingoan:

– Nola duzu izena?, galdetzen diogu.

Hori entzutean piztu egiten da bere aurpegia, begirada jaso eta zera erantzuten digu:

– Andoni.

Galdetzen jarraitzen dugu:

– Zenbat urte dituzu?

– Sei.

– Nongoa zera?

– Irurakoa.

– Aitak ze izen du?

– Joxe.

– Eta amak?

– Miren.

Alaitasuna itxuratu da haur-aurpegi hartan elkarrizketa motz honetan zehar eta amaitzerakoan ezpainak irekitzen ditu lore-



Lexikoa lantzeko bere marrazkietako bat

-petaloak bailiran, bere burutik ideia ilunen multzo batek itsumustuan ihes egiten duen bitartean:

– Maisu horrek euskaraz badaki!

Hau da, «*este maestro ya sabe euskera!*», itzultzaile moduan lagundu digun haurrak dioskunez, zera adierazi nahiko balu bezala: «*etxean gaudek hemen!*».

Jaso eta gorde ditzagun galdera miragarri hauek gure ohar-koadernoan berriro behar izan ditzagunerako eta, oraingoz gure oroi-menean jaso ezin baditugu ere, horrek ez du axolarik: hainbestetan erabili beharko ditugunez, ahaztu ezinezko bilakatuko zaizkigu.

Gaurko edozein pedagogok ondotxo dakie-nez, irakaste eskuartzeak emaitza egokirik

izango badu, irakasle eta ikaslearen arteko harreman-giroak eraginkorra izan behar du. Esan nahi da, irakasleak eskatzen diona badezakeela sumatu behar du ikasleak: ikasleak hori sumatzeko moduan aurkeztu behar dio lehenik irakasleak eginkizuna eta beldurrik ez sumatzeko moduan eskakizuna ondoren. Orriratu dugun zatitxoan Guasch jaunak bazuela horren berri adierazten digu ondotxo: hizkuntza ezberdinak bitarteko sortu ohi diren oztopoak gainditu behar dituela eta, ikasle aurrerratuago bati eskatzen dio laguntza, berak berez lor ezin dezakeena haren bitartekaritzaz eskuratu ahal izateko: ikasle beldurtuarekiko konfiantzazko harreman-giroa eraiki nahi du lehenik, ba baitaki giro hori ezinbesteko oinarria dela ikasleek



Iurako maisu zaharra bertako eskolako ikasle guztiekin



Guasch aitona bere bilobatxoetako batekin Donostiako Igeldon

beren garapenean eta ezagutzetan aurrera egin dezaten. Eta hemen bi gertakari azpimarratu beharko: lehena, Guasch jauna ez da lotsatzen bere eskolako haur bati laguntza eskatu beharrik, hezkuntza eta irakaskuntzazko lorpenek baitute beretzat lehenetasuna bere eskola-eginkizunetan; bigarrena, jokabide hori gomendatu egiten die ustez irakurle izango dituen maisu-maistra ez euskaldunei, baliabide pedagogikotzat jotzen baitu berak. Garai haietan ikasle euskaldunen eta irakasle erdaldunen artean etena sortzen zuen gertakaria –hizkuntza ezberdinak izatea eta batzuek besteena ez ezagutzea–, eta hainbatetan ikasle euskaldunen sufrimendu-

rako bide gogorra gertatzen zena, aukera pedagogiko moduan baliatzen du Irurako maisu zaharrak. Eredugarria!

Bada beste ezaugarri bat, gure maisuak behin eta birritan azpimarratzen duena, irakaskuntzan arrakasta izatekotan irakasleak beharrezkoa duena: *baikortasuna*, alegia. Egia da, esango digu, ahalegina eskatzen duela eskolan ikasleekin lanean jarduteak. Baina helburu duena eskuratzeko itxaropen sendoa duen maisuak, lortu egingo du azkenean bere xedea. Nahi izatea da kontua. Hona bere hitzak:

Fedeak mendiak tokiz aldarazten dituela dioen esaera ez da, niretzat, kontu hutsa, baizik eta errealitatea.

Helburu bat jarri eta, beharrezko bitartekoak jarritz, eskuratuko duela sinetsi dezanak, lortu egingen du, seguruenik, xede duena. Hau da, bere eginahaletan iraupena izan dezanak eta bere helburuari eusten dionak, ia seguru du bere lorpena ere eskuan.

Baikortasuna! Ni baikorra izan naiz benetan nire ahaleginetan eta baikortasun horrez jarduten dut eskola-gauzetan ere.

Nire itxaropenak epeltzeko hainbateko eragozpenak izan ditut, bai, nire ahaleginetan, baina hurrengo egunerako berrindartu egingen zaizkit; bereziki eskola-maila batetik bestera pasatzerakoan gertatzen zait hori. Berrikuntza bat sumatzen dut atsedenaldir horretan. Maisu hobeagoa izanen naizela ikasturte berrian, pentsatzen dut beti.

Azken batean, maisu izateak bokazioa eskatzen duela baino ez du adierazten hitz horiekin. Eta gogoz jardutea! Baina, baita pedagogia-senez baliatzea ere bere arrazoiketa guztian zehar argi eta garbi suma daitekeen. Sen horren eskakizunik behinenetakoa, arestian gogoratu dugunez, ikasleen giroan txertatzea litzateke Irurako maisuaren iriziz.

b) Marrazkiaren bitartekotasun didaktikoa

Bere lan guztietan zehar aurkitzen dugun beste ezaugarri bat, irudi grafikoaz edo marrazkiaz egiten duen erabilera da. Ares-

tian aipatu dugunez, ezaguna ere, berak bere maisu-eginkizunetan marrazkiaz egiten zuen erabileragatik zen, inondik ere, ezaguna Irurako maisu zaharra. Hori horrela, Euskaltzaindiko kide ere baziren maisu-maistra haiek *Marrazkia = Oroizkera*. -*Euskera irakasteko nola erabilli?* gaiaz hitz egin ziezaiela eskatu zioten.

Bere esku-izkribuetan maiztasun handiz darabil marrazkia ikasleei (eskolakoei eta helduagoei) adierazi nahi diena oinarritzatu eta sendotzeko. Hemen adibide modura eskaintzen ditugunetan argi eta garbi ikus daiteke, gainera, marrazteko oso era berezia dela Guasch jaunarena: berak, aipaturiko hitzaldiaren bigarren zatia izan daitekeenean, marrazkiak «ahalik eta xumeena, soilena» izan behar duela ere badio eta. Beste toki batean zera gehitzen du: «Gauza erreza da marrazkia. Beno, hau diodanean nire haur-marrazki hauek aipatzen ditut, baina eskolan zerbitzu handia eskaintzen dutela uste dut nik».

Azter ditzagun berak irudi grafikoari aurkitzen dizkion balio didaktikoak. Hona hitzaldiko hainbat pasabidetan dioena:

Zuei ezaguna zaizuen, apostoluek beren prediku-lanari ekin ziotenean behin eta birritan gertatu zen mirarrietako bat zera izan zela, herrialde ezberdinetako jendea elkarturik egonik ere, berbaldia bakoitzak bere hizkuntzan ulertzen zietela.


Mirari-izaerarik atxikitzeko inolako asmo-rik gabe, marrazkiaz ere antzeko zerbeit esan behar. Ikus dezagun. Eman dezagun, hemen elkarturik gaudenetako bakoitza hizkuntza ezberdin baten jabe dela. [...] Hori horrela izanik ere, nik gauza ezagun baten irudia arbelean jartzerakoan –ogi batena, adibidez– honako gertakari hau gauzatzen da ezinbestean: irudiari dagokion izena moldatuko litzateke gure garunetan, ihes egin nahiko balu bezala, gure ezpaine-tara joko lukeena, askotan, eta bereziki hau-rretan, ia inkontzienteki egin ohi duenez.

Gutako bakoitzak berari datorkion izena hemen arbelean idatziko bagenu, izen-zerrenda bat osatuko litzateke berehala:

Ogi
Pa
Pan
Pain
Brot
Breet
.....

Prozedura honi esker elkar ulertuko lukete jatorriz hizkuntza ezberdinen jabe lirateke-en pertsonak eta elkarri irakatsiko liokete, hau da, hizkuntzak ikasiko lituzkete.

Gaztelaniatik hain berezia den hizkuntza duen Euskal Herri honetan aplikaturik oso emaitza egokiak eman dizkit niri eta baliabide indartsua gertatu zait eta orain baino



Zenbaki ordinalak adierazteko marrazkia

indartsuagoa gertatu zitzaidan nire lanari Euskadin ekin nionean.

Horra, beraz, marrazkiaren dohainetako bat: hizkuntza ezberdinetan izen mintzatu ezberdinez adierazten dugun gauza edo gertakariaren errepresentazioa dakarkigula berehala burura, errepresentazio guztiongan berdina edo berdintsua gertatzen delarik beti. (Gogora dezagun hemen, pasarte hone-tatik hartua baita, lehenago aipatutako hura, horrela jokatzuz egunean hamar hitz irakatsi/ikasiz gero, 3.650 liratekeela urte batean ikasitakoak: lexiko zabala eskuratzeko bide aproposa).


Bere sen pedagogikoari jarraituz, berehala ekiten dio ikasitakoa jolas bidez lantzeari. Eta

hastapenetan erabiltzeko egokia zaio «ikusimakusi» jolas ezaguna. Beste une batetan «Arre-arre mandako, bihar Tolosarako» jolasa hartuko du hastapenetan erabilitako hizkuntza lantzeko. Hau ere, beste koplak batzuk bezala, haurren jolasetatik zuzen-zuzenean jasoa:


Jolas-ordua. Garrasiak, algara edonon. Jarri diezaiogun arreta taldeetako edozeini. Zaldiko-maldiko moduko jolasean dabilta inguruko hauek. Eta jolasak badu bere abestia. Poliki-poliki hitz batzuk hartzen ditugu eta askotan errepikatzen dutenez, ez zaigu lan zaila izanen abesti osoa hartzea: «Arre-arre mandako, bihar Tolosarako, [...]».



Guasch maisuaren garaikidea zen Ixakak haur euskaldunentzat prestatu zuen eskola-liburuetako bat




Zenbaki zatikidunak irakasteko marrazkia



Zenbakiak lantzeko marrazkietako beste bat

Horra bere pedagogiaren beste ezaugarri bat: atsegingarritasuna. Berak aitortzen duenez, haurrak eskolako atsedendietan jolasean ikusi eta entzundakoan jasotako jolasak ditu horretarako aukerak eskaintzen dizkiontenak. Irakasteko ikasleetatik ikastea ere ez dela bide desegokia adierazten digu horrela. Hemen ere murgiltze-ereduaz baliatzen da bere pedagogia gauzatzen joateko.

Eta marrazkiaz baliatzen jarraitzen du izenlaguntzaileak, adberbioak, izenorde erakusleak, aditzak eta hizkuntzaren beste gramatika-osagaiak irakasteko ere.




Izenorde erakusleak lantzeko marrazkia. Euskarazkoetan akatsak daudenez, hastapenetakoa dela pentsa daiteke

Amaitzeko hitz batzuk

Orain artean ezezaguna zitzaigun bere garai-ko maisu, hezitzaile eta pedagogo baten irakasbideak aztertzen saiatu gara orrialde hauetan zehar. Ezaguna izan zen bere bizitzako aldi batean, *Euskaltzaindiaren Laguntzaileen* orduko *Deia* eta Gipuzkoako *La Instrucción Primaria* aldizkarietan, eta hil zenean egunkariren batean agertu zen oroitzen-oharrean adierazten zaigunez. Mitxel-enaren arabera, *gerra aurreko urteetan, 1929-30az geroz, euskal gaietan gorengo mailara, egundainoko erpinik erpinenera, helduak ginelako: horrela uste genuen, behintzat orduko abertzale euskaltzaleak*. Garaia itxaropentsuak ziren haiek eta, giro horretan lan egitea ze-

gokionez, bere ekarria, bere arloan, eskaini zion Guasch jaunak gizarte hari. Irakaskuntzarako eredu elebidun dinamikoa sortu zuen bere eskolan eta horrela agertu zien beregana jo zutenei. Ekarri preziatua, Martin Lekuona apaizak bere gutunean adierazten zionez.

Urte batzuk geroago dena aldatu zen, zorigaitzoko gerraren ondorioz. Eta *Estatua*, eta *Estatuarengandik zetorkigun irakaskuntza*, etsai omen genuen, hizkuntzaren eta euskal kulturaren etsai, gogoratuko digu, beste askoren artean, Mitxelena berak. Estatu horren funtzionario zenez, Estatu horren lege eta aginduetara makurtu behar izan zuen Crispín Guasch maisuak ere Iruran, bere lanbideari



Guasch maisuaren marrazkietako beste bat



Guasch maisua bere zahartzaroan, Iruran zuen etxearen aurrean

eta, batez ere, bere eta bereen bizi-bideari eutsiko bazion. Antza guztien arabera, ordea, begirune osoz jokatu zuen bere ikasleekiko harremanetan, nahiz eta, agerian bederen, euskararen erabilera alde batera utzi beharra tokatu zitzaion.

Bere pedagogia-ikusmoldea agertuz hain aurreratuak zituen lanak argitaratzeko beta eta aukerarik izan balu, laguntza eskerga izanen genuen hamarkada batzuk geroago

berriro irakaskuntzan euskaraz hasi zirenek eta ginenok. Tamalez, horretan ere kaltetua gertatu zen euskal eskola.

Dena dela, bakoitzari berea zor zaionez, izan bitez orrialde hauek Kataluniatik Euskal Herrira etorri eta orduko euskal irakasle-entzat eredu eta laguntzaile izan zen Crispín Guach pedagogoaren oroitzapena gordetze-ko bide xume.

Donostian, 2001eko abenduan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Pepita Guasch*
- *Lontxo Oihartzabal*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1876-2 (Lan osoarena)
84-457-1877-0

L.G.: VI-565/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística